



NAFARROAKO BAINU-EREMU NATURALAK

Pulguer idoia Tuteran




Mota: Idoia | Kokapena: Tuteran

Pulguer idoia Batasuneko garrantziko lekua (BGL) eta natura erreserba da 1987tik. Nafarroako hegoaldean dagoen bainu-eremua da, eta klima idorra du nagusiki. Hezegune oso garrantzitsua da hegaztientzat; zehazki, zikoinen etzaleku nagusia da Nafarroan. 1627an sortu zen, ureztatzeko idoia eraiki zenean. Udan uraren tenperatura 22 eta 26 °C artekoa da. Gazitasun ertain-altua du. Buia batzuek mugatzen dute uretako kirolak egiteko eremua. Leku ezin hobea da naturarekin kontaktuan egoteko, uretan sartu-irten bat egiteko, igeri egiteko edo kayaketan edo windsurfetan nabigatzeko, adibidez.

Ekipamendua: Zabor edukiontzi bat du, sartzeko errepidearen ondoan. Ez du komunik.

Sarbidea: N-113 errepidetik NA-6810 errepidean (Tutera-Corella) sartuko gara. Tuterako norabidean jarraitu, eta 4,6 km-ra, NA-6830 errepidean (Murchante-Cascante) sartuko gara. N-160 gurutzatu, eta 7,00 PK igaro ondoren, eskuineko bidean sartuko gara. Bidezidorra 400 bat metrora amaitzen da, eta ezker aldean aparkaleku bat dago pinudi batean. Bertan autoa utzi, eta idoia inguratzen duen bidea hartuko dugu. 100 metrora etxola bat dago, eta haren atzean hondartzetako batera sartuko gara.



Nola iritsi